

gu beste batzuei emoteko be. Abadiño'ko efi guztiak nai dau Atxarteraño bide bafia egitea, ba ofa eldu bear da.

**Eunak eta soñeko eginañak**  
**Zeara'tar Erupin**  
**Cenderia 15** **Bilbao**

*Lenengo Jauna artzea.*  
Igaro dan egueanean Lizundia'tar Angeles, Odriozola'tar Cecilia, Legorburu'tar Pedro, Kastilo'tar Teresa, Bizkafa'tar Jose Luis, Zubero'tar Elias, Areitio'tar Mercedes, Loitxate'tar Maria Angeles, Munitxa'tar Catalina, Erdoiza'tar Jose, Oregi'tar Antonio, Urizar'tar Saturnino, Lizundia'tar Jesus, Ezenafo'tar Tomas, Uria'tar Gergorio, Uriarte'tar Alberto, Urien'tar Bizente, Urizar'tar Juan, Astigafaga'tar Paul, Etxebafia'tar Genaro, Eguren'tar Miren, Lizundia'tar Klara, Bastegetxea'tar Maria Angeles, Alberdi'tar Maria Katalina, Arando'tar Martina, Gaztelu-Itufi'tar Margarita, Balenziaga'tar Mari Karmen, Itufiza'tar Maria Luisa, Itufiaga-Etxebafia'tar Paula, Azkarate'tar Karmen, Lafuskain'tar Estefana, Asagife'tar Maria, Arabiotofe'tar Itziar, Afiaga'tar Juana, Urien'tar Alejandra, San Agustin Etxebafia'tar Kristina, Itufiaga'tar Margarita, Uribe-etxebafia'tar Isabel, Mendiogarai'tar Martin, Olea'tar Pedro, Erze'tar Jose, Azkafaga'tar Leona, Igartua'tar Felisa, Oregi'tar Antonia ta Salterain'tar Jesusa'k, lenengoz gure Jauna artu eben. Zorionak.

*Ezkon-deyak.*  
Agife'tar Felipe eta Uriarte'tar Sebastianenak igaro dan igandean deitu ziran Zorionak.

TRAÑA

**Mañaria.**

Igandian, ilaren 9'gn, amafetako meza ostian egingo dan batzafera efiko abertzale gustijari dei egiten jakie. Batzar ofetan, auteskundiatzako erabagijak artu biar diralak, inortxok be eztaijela utsik egin.

*Euzko-jaya.*  
Gure batzokijaren eta E. A. B.'ren askundia, datoñen ilian edo ufenguan (J. L.) ixango da. «Kirikiño»ren ome-nezko jaya be baña, egun berian egin leikelako, Euzkeltzale-Bazkuna'kuak egun ori ixentauko dauskube.

Bitartian bafiz gu, al-doguna egiñaz gertau gadixan.

*Agurtu.*  
Igande goxian agurtu gebazan emen, Azurmendi'tar Joseba ta Garremendi'tar Jon, Durango'ko abertzale zintzuak.

*Juan-Etoñijak.*  
—Eibar'era juan zan Sarobe'tar Pausta mutia.

—Santurtze'tik etofita astelenian egon ziran emen, Kapanaga'tar Bitor eta emazia.

*Mendigoxaliak.*  
Igandian mendigoxale asko etofi zan atx mendijetan eguna igaroten. Eta, eurretariako batzuk, emeko ele-xan meza deuna entzuten egon ziran. Kistar zintzuak, an eta emen, nainun ezagun.

**A. Rui-Wamba**  
Elezak jasateko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke  
Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.238  
**BILBAO**

*Jazorikua.*  
Lengo iluntzijan, emeko emakume batek, bere senafari esan eutsen.  
—Nik esnari artzen dauñadan gustue jandija da gero! Edanak edan eginda be, ezin naz ase-ta.

Eta senafak erantzun eutsen.  
—Neuri be ardaugaz bardin-bardin jazoten jata; edanak edan egin afen, ezin inoz bete.

MAÑARIKO

**Axangiz.**

*Zorioneko astelenak.*  
Efi onetan astelenak gizezkuentzako barau egunak dira, euberdian beintzat sukalde otza etxe askotan egoten da: amabi afautsa, lau pofu ta birakask bigaz, emakumerik geienak amaiketarako Gernikara juaten dira, ume-jabola gizona itxirik. Etzeko onian ei da-ta tire...

Baña kontuz, jazo ez dakizuen lenagoko astelen baten emakume biri jazo yakona. Lau laurleko pofu berakatzakak artu, ta lau ta erdi karolinatan irasi. (Ederki yauk).

**JANTZIAK**  
gizonentzako Teodoro-nian egingotzue iñun beizen ondo eta lauko asko kendubarik.  
**TOVALINA Y C.ª L. D.**  
SOMERA TT  
**BILBAO**  
Lenengo oñian sartukeria dendatik.

*Auteskundiak.*  
Auteskundiak laster doguz, gizon-emakume oingoo ilean asko balio dabe, oraintxe da denporia ta gogor egin eskumatafak, batez be euskotafok geure izkuntza garbia zaindu, ta Jel-pian beti irauteko.

*Jayotzak.*  
Jayo'tar Nilo ta Ufutzua'tar Selesik alabatxu bat izan dabe, ta ugutzau dabe Garbiñe euskel-izen polita ipiñiaz. Zorionak.

*Mendata'ko «Zoruna» idazleari.*  
¿Gogo-iñarkunetatik ona ez dodala idatzi?... Etzagoz; ondo eztozu astearo EKIN irakurten ala? irakurten ez badozu, ia auferantzian zelan irakurten dozun; ba neu sapateruen tabernan egon ezeez, idazten be aleginduten naz, gustiok argiralduten espadira be, ez dakit nor dan efuduna baña, ainbatean otzaria izango da.

NEU

Otzaria, emoten yakon gustia artu ta ixilik dago. Baña ez uste izan otzarara zeuen idazkiak jaurtitia atsegin ixaten doñanik. Batzuetan nora ezian jaurti biar. Labur eta ainbat lasteren bialdu egizuez idazle gustiok eta otzariak utsik egon biarko dau. Zure idazkiak polito datoz.

**GORUNTZ - GAYAK**  
Eunak, bale-bizarak, zumitz ugaf-gaitzak  
**Zubiri'tar Bingen**  
Artekale, 50 **BILBAO**

*Ea.*  
*Igandian*  
egurastuaz mendirik-mendi eta basefirik-basefi juan gintzazan bost lagun, eta eldu gñan Ispaster'ko «Garate» basetxera; etxe au, arbera atx-ganian eginda dago. Eskaratzta batez be ze ikusija dauko; zapaldria (pavimento) arbera landu bakua, bere gora-berakaz, laratza eskaratz erdi inguruan, sua beian ganian, ke-zulorik be ez dauko. Gure asaban bixikera erkabafa (patriarka) iñun baño obeto dakusgu gure basetxetan, baña batez be aitatu dodan basetxe au lakorik ez dot asko ikusi, neu be basefitafa naz baña. Bertako etxeko andra onak sagar umauak emon euskuzan.

Berantzian «Oyarbe» basetxian ixan gñan, eta Tomasa'k sagardua eta ogija emon euskuzan; onegaz esan nai dot ze esku-zabalak diran

gure basefitar zintzuak. Eskafik asko zeuri.

*Iluntze gustietan*  
gure txaidetik igaroten zarien iru neskafoi eskafik asko, eta nai dozuenian igon gurera ta emongo jatzuez talua ta lukenkia uragaz.

*Kalifornia'ra*  
juan jaku Barainka'tar Joseba; baita oin alditxu bat juan ziran Landa'tar Esteban eta bere emazte Uria'tar Dolores, euren semetxuagaz. Ondo ibili eta arin etofi osusun eta txindiz beterik.

*Euzkel-ixenak.*  
«Zubialdeko» Gregorio'n alabatxuari Amaya, eta «Olako» Emilio'n semetxuari Joseba. Zorionak gurasuori; orixe da jaza, Euzkadi'n euzkel-ixenak.

PRAISKU'REN LOBIA

**Otxandijo.**

*Auteskundiak.*  
Efi onetan bere ilonen 23'an. auteskundiak egongo dire, bost ziñegotzi ixentetako. Betik direz auteskundiak gafantzi andikoak, baña batez be oraingoak, zertzelada askogaitik, gafantzi andikoak dire. Udala aurkitzen da, esku artian daukezela egin biar andijekin; alde-batetik lugintza arazoai kare-toki, artaberde ta bedar tokijak egiteko dana dago gertu, beterik ezta biar ontzat artu ta egitie. Askok eztabe ikusten, baña argi dago, gaurko egunian lugintza arazoa dala gafantzirik andikoena, gure basefitafak itxu-itxuan jokatzan dabe ta bete-betian bizi; baña ez, lortu

**UMIEN LAGUNA**

Umientzako ta nausitxoentzako be

**eleiz libururik ederena ta merkiena**

Lauerleko batetik asita bosterañokuak, zelako azalaz gura dan.

biar da, lagundu alde-guztjetatik eurok, jakiñik itufirik aberatzena dagoela lufian ta gero dan danak alkartu egiten direnenian bafez, ikusido da argi ta garbi lugintze dala onena ta gizon zintzuenak lugiñak direzela.

Beste alde batetik daukogu, orain langiliak aurkitzen dira ikesi nai ta ezin ikasi, betik ez jakiñian jafaitu biar, langilien umetxuak bafez, nora juan eztabe eukiko, ardi galdua legez ementxe ibiliko dira, gurasoak txirurak ta umiak txiroagoak, baña ez; andik edo emetik, jokatu biar da sendo ikastolan egin daitezcan langilientzako, badakigu ofetarako euzko-langiliak, ikusirik argi ori utz-unioi, lan egiteko gertu dagozela ikastolak egiteko. Beste eginbiar asko be badago baña, gaurko egunian onixek bijok dira lenenguak, ez emen bakafik, ludi gustijan. Esandako arluau betetako bafez jakiñe, bafiketa gutxi, itxi alde batera kokolokerijai, gauza txikijari, ta lana egin efijaren alde. Urtiokin asko egin dala ez esan, geyago egin biar da, itxaroten dagoz lugiñak eta langiliak, lo ezta egon biar, jafaitu sendo.

URIGOIKO

**Gautegiz-Arteaga.**

*Neure lenengo agura.*  
EKIN'en artezkari, idazkari eta irakurle danoi neure agufik bijozkoyen bat. Efi-izparkari bafi bat jator-tzube zeben artera, idazten ikasijez, izpar batzubez be, egon ezkerok, idaz-

teko ustez. ¡Nok leuki onetarako «Lili-Efeka» baten etofiya eta «Eliz-Mendi» baten gatz! Baña, itxi geldi. Txindor goxtar zolijak be, ufe-txindofa'ren neufira eldu ezafen, aintxe bere abesti alaitsuakaz Jaungoikua aintzaldudara; eta nik be Elantxobe eta Legendika'ko ufe-txindor'en bestian ez-pada be, txindortxu papar-gofi baten antzera egingo al-dot.

Beste efi batzubez jaupari batzubez eurek bidaltzen ei-dabez izpar eta idazki edefak. Emen bafiz jaupari euzkel-idazle trebiak daukoguzan afen, edo asti gitxi daukelako edo astian beñi idazkitxu bat egitia neke andi yakelako, eztabe «taunkit» EKIN'en idazten. Onex ez-badagije ba, aiñbeste ezkarrienok egin biar... eta azketsi ba.

*Agintza.*  
Igazi zan igandian efi onetako Uri Buru Batzafaren agintza bat ikusi

**JOSE LUIS ABAITUA'ren GABEUKAZ ETA BITXI-TEGIA**  
Ormako, sakeleko ta eskubitufeko gabeukatzik onenak zidafezko naiz ufegofizkoak.  
Deun gustien domiñak, norberak gura dauzan era-erakoak.  
Apurtuak osotu ta bafiztuten dira.  
**Postas 26 - Gaztelz - Vitoria.**  
Idazketxe-afean = Frente a Correos

geban Batzokiko aretuan; esaten ba ze: «Elexosteko aretuan, antzerki-jayak emoteko asmoz, artarako gertukixunetan dabiltzazan abertzale alderdikidetubak, artu daben bide oferi itxi eta atzerantz ezpadagije, Euzko Alderdi Abertzale'tik jaurtijak ixango diriazala; egikera ofetatik aberkide arteko asafia eta banatzia baño eztafotelako», agintza arek diñubanez.

*Zori-onak.*  
Emeko U. B. B'eko idazkari Omagogeaskoa'tar Andoni'ri alaba eder bat ekafi dautso emaztiak; eta Afuti'tar Andoni eta Naberan'tar Jule aña -ama bitxitzat euzala, ugutzauta, Miren Josune ixen edefa esafi eutsoen. Zori onak aña amari.

BETOZKIÑA

Ondo etofia zeuri. Jaupari banaka bat bado-guz izparkari, baña geyenez jaupariak ez dauke ofetarako astirik. Or, Gautez'en be ori jazoko da, Ondo egin dozu ba zeu astea, gaste bizkor ofek. Ederto idazten dozu ta jafai.

**Gabika.**

Igaro dan asteko EKIN izpafingian irakufi nebazan emengo izpartxu ba-

**Joseba Deuna'ren Idaztitegia**  
(Libreria SAN JOSÉ)  
Bilbao'n danik orniduena uz-kurtz'tzazko saloskai gauzetan.  
**BILBAO'n Loferla 2**  
**Eleiz - Jantzi ta urregintza**

tzuk eta len emengo notiñ gustiak itxartu barik egon gara, nire ustian; baña orain albotik zirikatuten asi jakuzan ezkerok, ni asten naz gaur lenengoz idazten, artezkari jaunak leku apur bat isten badost aufera jafaituteko amesagaz.

*Belguntza*  
Edefak euki doguz emengo deun Jon'an txadonan, aita Martin karmeldar oin-utzaren bitartez eta notintza andija etofi jaku bertora. Umiek kistar ikasbidia ikasten daben lekue be beterik egon zan, txadonian lekuri ezta, eta baita kanpuen be asko: Ereñotik be notiñ asko etofi jakuz; artietakuek baño obeto portau ziran.

Eskefak eurari baita txauburu jaun biari be, ondo etorten izan diralak egun gustietan.

Baita Nabarniz'etik be etofi yakuz, baña tamalez zentzun gitxitxu euki edo emengo itzak entzuteko baño ardaud edateko egafi aunditzauaz etofi ziran. Bertoko Amerikanuek

**Eleizkixunetarako Argizagizko kandelak**

**Eleixiak aginduta daukazan erakuak**

Kandela motak: MAXIMA ta NOTA-BILI, zigufitasunaren ikufatzdunak, azkenengo aginduen arauz.  
Kandela oneikaz CAPITEL GAUNA erabili ezkerok, argizagi asko auferzuten da.

**QUINTIN RUIZ DE GAUNA'REN SEMIA**  
GAZTEIZ.-ARABA (VITORIA)

nastien ziran ezkerok, oba zan aspil bete aragi eta nastien topiña bete morokil euki balebe.

*Dabiltzanak.*  
Gernikara juan jakuz Afoita'tar Ramona bere seme-alabakaz, egun batzuk igaroten.

Aita Goikoetxeak eiten deusku dei bat ila onen bederatzian bere itzaldi bat entzuteko Gernikara. Ia ba guazen gustiok beragana, an ikusikogu alkar eta.

SANTAKRUZ ONDO

(1) Asi asko eiten dire, baña jafaitzea beste kontu bet da. Ikusiko dogu Gabikakuok zelan zabizen, eta gero esango dogu geure etretxe ta asmue.

**Foru.**

Igasi dan ilean, lekaretxian izan dogu iru-ufen berarizkua; txonizlarija Aña Idoyaga'tar Pidel izan da bertoko semia eta Bermeo'ko lekaretxian dagona. Jaunaren itza entzutera notintza izugafia eltzen izan da, baña jitz asko sastraka artian ez ete dira jausi? emokayak esango dabe. Zorionak Aita Pidel.

*Gogo-iñarkunak.*  
Emengo inguruetan ondo ezagutzen dan Aita Goikoetxea aurkitzen da egunotan gogo-iñarkunak emoten Deun Martin txadonan goixeko 8'tan emakumentzako, eta iluntzian gizezkuentzako. Emokai ugariak ixango alditu.

*Gestora.*  
Bai, irakurle, guk be emen «gestora» edo dana-dalako ori dogu, baña eutzun dodanez geu «latigopian» ibilteko asmua ei dabe, baña zelan izan leiteke ori? ba euron lagunak esana da «la voluntad del pueblo es soberano» ala, aiñ arin aztu jatzuez itzok? ala uste dozue Afrika'n gagozala? ¡Geu latigopian! Nok emon dautzue eskubide ori? Jopu edo «esclavo» aldi-ja amaitu zan ¿bai? ala zetarako dira ba ostantzian «Libertad» eta beste zarata gustiok? zeuontzat bakafik? eta beste gustiak jopu biurtu? orixe ederto, baña aspitik ez aldago beste zeren bat... miauu... baña ez igafi baik.

*Auteskundiak.*  
Onex be ur ixan biar dabe, ba zapartaka ibili biar dira emengo «democrata»k. Orañ arte iñok bixi diranik be eztau jakin, baña Bilbo'ri «Euzkalduna»ko itzaldira Cordero'ri entzuten izan ziranik onga, zoli dabil-tzaz. ¡Agixajuak arek emengo dautzue «enchufien» bat. Zur ba gixon eta emakumak, oraintxe dago erarik onena geure arerijo oferi zer garan erakusteko, gero negar egitiak ez dau

**ARGI DONEA** gipuzkeraz salgei daukaguz JAUNGOIKO-ZALE'ren idaztitegia, 4 lauerlekoan dag oz.

balijo, Kistotafak garan gustiok geure autarkija kistotafai, ta ez goixian argi bat Jaunari eta gerotxuago beste bat diabruari iminten dautsenari. Begitu bakotzak zer egiten dogun.

ELEIZ-TXORIJA